

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



2. maila | Entzumena | 2E9 | A eredua

Deiturak:

Izena:

NA:

Ahozko azterketak bi zati izango ditu:

- Entzumena
- Mintzamena

Entzumenaren ondoren, mintzameneko azterketa izango duzu.

Entzumena amaitu ondoren, **10 minutu** izango dituzu mintzameneko proba prestatzeko.

	ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposaturiko denbora
Ahozko azterketa	Entzumena	10	20	25 min inguru

	Mintzamena	15	30	10 min inguru
	Guztira	25	50	

2011ko lehen deialdia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HADE

1. MAILA Entzumena 2E9 A eredua



Entzumena

I. TESTUA

Ondoren, **gasaren eta argindarraren faktura bateratuaren** gaiari buruz hitz egingo digu Jose Luis Segurak Euskadi Irratiko irratsaio honetan.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu.

Entzutun duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

0. Zer eskaintzen dute etxeetara bisitan datozen saltzaileek?

- Deskontuak, argindarra eta gasaren fakturak bateratuz gero.
- Argindarra gutxiago ordaintzeko aholkuak.
- Argindarra eta gasaren faktura bateratuak ulertzeko azalpenak.

1. Zer eskatzen du saltzaileak eskaintza hori egiterakoan?

- Lehendik beste argindar-enpresa batekin kontratua izatea.
- Azken kontratuaren kopia bat erakustea.
- Ordaindutako faktura bat erakustea.

2. Zer ezartzen du kontsumitzaileen babeserako legeak atez ateko kontratuei buruz?

- Gutxi batzuetan bakarrik egin daitekeela atzera.
- Mota honetako kontratuetan atzera egin daitekeela.
- Ohiko tokietatik kanpo ezin dela kontraturik sinatu.

3. Nor dago derrigortuta atzera egiteko eskubidearen berri ematera?

- Komertzialek egin behar dute.
- Kontsumitzaileen elkarteak.
- Berez, inor ez dago horretara derrigortuta.

4. Zein epetan egin daiteke atzera?

- Hamabost lan-eguneko epean.
- Zazpi egun naturaleko epean.
- Hamar egun naturaleko epean.

5. Zer egin behar du enpresak kontsumitzaileak atzera egin duela jakiten duenean?

- Kontratua deuseztatu eta gure datuak isilpean gorde.
- Kontratua bertan behera utzi eta gure datuak ezabatu.
- Gure datuak artxibo berezi batean gorde eta kontratua zuzendu.

6. Nork egiten du faktura bateratuen fakturazioa?

- Gasa ekoizten duen enpresak.
- Argindarra ekoizten duen enpresak.
- Guk kontratua sinatzea lortu duen enpresak.

7. Zein arazo-motaren aurrean erantzun behar du fakturatzailerak?

- Zerbitzuarekin sortzen den edozein arazoren aurrean.
- Arazo-mota jakin baten aurrean bakarrik erantzun behar du.
- Ekoizlearekin sortzen diren arazoen aurrean bakarrik.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan.

0.- a	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

2. TESTUA

Ondoren, **Jacquin Du Pré-ri** buruzko musika-saioaren aurkezpena dugu entzungai. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

0. Gaurko saioan entzungo dugun obra nork egin zuen ezagun?

- Jacquin Du Prék.
- Rostropovichek.
- Pau Casalsek.

1. Zeri buruzko liburua idatzi zuten Jacquin Du Préren anaiak eta ahizpak?

- Bere musika-joerari buruzkoa.
- Bere bizitzari buruzkoa.
- Bere ibilbide artistikoan izan zituen maisuei buruzkoa.

2. Nondik etorri zitzaion Jacquin Du Préren txeloa jotzeko zaletasuna?

- 5 urte zituela izan zuen opari batetik.
- Txikitan irratian txeloa entzun ondoren.
- Bere familiak musikarako zuen zaletasunetik.

3. Zergatik ez zuen obra hau Rostropovichek interpretatzen Jacquelinek egin ondoren?

- Jacquin Du Prék baino hobeto ezin zuelako egin.
- Istripu baten ondorioz elbarri geratu zelako.
- Gaixotasun larri baten ondorioz hil zelako.

4. Entzungo dugun bertsiotan zein dira parte-hartzaileak?

- Daniel Barenboim pianoa jotzeko eta Jacquin Du Pré zuzendari lanean.
- Jacquin Du Pré zuzendari lanean eta Daniel Barenboim txeloarekin.
- Jacquin Du Pré txeloa jotzeko eta Daniel Barenboim zuzendari lanean.

5. Nola hil zen Jacquin Du Pré?

- Gaixotasun baten ondorioz.
- Istripu baten ondorioz.
- Pozoinbata hil zen.

6. Entzungo dugun obra hau nolakoa da?

- Kantu lasai bat, ahotsik gabekoa.
- Gaixoak lasaitzeko kantu bat.
- Ahots goxoko kantu lasai bat.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan.

0.- a	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----

3. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratiko saio batean, **HIESaren egunari** buruzko informazioa entzungo duzu. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

0. Zein da HIESaren eguna?

- a. Abuztuaren 2a.
- b. Abuztuaren lehen eguna.
- c. Abenduaren 1a.

1. Zer aldarrikatu nahi dute osasun-agintariak?

- a. Diagnostikoa beraiek egitea eta ez beste norbaitek.
- b. Diagnostiko egokia egitea.
- c. Diagnostiko goiztiarra egitea.

2. Zein da gaur egun HIESa duenaren profila?

- a. Gizonezkoa, homosexuala eta 50 urtetik gorakoa.
- b. Gizonezkoa, heterosexuala eta 50 urte ingurukoa.
- c. Gizonezkoa, homosexuala eta 50 urte ingurukoa.

3. Zenbat test egin dira Gipuzkoan?

- a. Hiru milatik gora.
- b. Hiru milara ez dira iritsi.
- c. Lau mila inguru.

4. Zer jende mota joaten da probak egitera gehienbat?

- a. Gizonezkoa, heterosexuala eta 30 urte ingurukoa.
- b. Gizonezkoa, homosexuala eta 50 urte ingurukoa.
- c. Gizonezkoa, homosexuala eta 50 urte baino gutxiagokoa.

5. Probak egitera etortzen den jendeak zer arreta jartzen dio HIESari?

- a. Informazio gutxi daukate.
- b. Informazio ona dutelako etortzen dira.
- c. Informazioa lortzea oso zaila zaie.

6. Seropositiboa izatea eta HIESa izatea gauza bera dela pentsatzen du jendeak?

- a. Botikariak ezetz pentsatzen du.
- b. Askotan hala dela pentsatzen du jendeak.
- c. Sendagilearengana joan arte gauza bera dela pentsatzen du jendeak.

7. Nola egiten da HIESaren aurkako froga?

- a. Odola atera eta 15 egunera emaitzak ematen dira.
- b. Odola atera eta 15 minutura aztertzen da.
- c. Egunean bertan 15 minutuan jakiten da emaitza.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan.

0.- c	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----